

2019KO AZAROAREN 20EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA	ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 20 DE NOVIEMBRE DE 2019
--	---

Alvaro GONZALEZ PEREZ (PNV-EAJ)

<u>BERTARATUTAKO BOKALAK</u>	<u>VOCALES ASISTENTES</u>
------------------------------	---------------------------

AMIEVA CLEMENTE, Paula (ELKARREKIN PODEMOS)
 ARANDUY ZUAZAGOITIA, Natalia (PP)
 ARREGI MARTINEZ, Joseba (PNV-EAJ)
 MASEDA SARATXO, Itxaso (EH BILDU)
 OLAETA PÉREZ DE MENDIOLA, Asunción (PSE-EE)
 RICA ALVAREZ, Arantza (PNV-EAJ)
 RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon (EH BILDU)
 SERGIO ATXOTEGI, Carlos (PNV-EAJ)
 URIARTE GOROSTIAGA, Inazio (PNV-EAJ)
 ZORRILLA-LEQUERICA PAÑEDA, Gonzalo (PP)

<u>BEHIN-BEHINEKO GERENTEA</u>	<u>GERENTE ACCIDENTAL</u>
--------------------------------	---------------------------

ZABALA LASA, Gorka jn.

<u>AZTERGAIEN ZERRENDA</u>	<u>ORDEN DEL DIA</u>
<p>16.- 2019ko urriaren 15eko ez-ohiko bilera akta onartzea, hala badagokio</p> <p>17.- Kontratazio mahaia osatuko duten kideak izendatzeko erabakia onesteko proposamena; Getxo Kirolak TEA-ko zuzendaritza batzordearen eskumeneko kontratuen eremuan lan egingo du.</p> <p>18.- Thinking fadurako proiektuen lehenetasunak onetsi</p> <p>INFORMAZIO OROKORRA</p> <p>GALDE-ESKEAK</p>	<p>16.- Aprobación si procede, del acta del Consejo Rector extraordinario del 15 de octubre de 2019.</p> <p>17.- Propuesta de acuerdo para la designación de los miembros que compondrán la mesa de contratación que actuará en el ámbito de los contratos que sean competencia del Consejo Rector del Organismo Autónomo Local “Getxo Kirolak”</p> <p>18.- Aprobar la priorización de Proyectos derivados del Thinking Fadura</p> <p>INFORMACIÓN GENERAL</p> <p>RUEGOS Y PREGUNTAS</p>

Getxon, 2019ko azaroaren 20ean, 10:15ean, ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea, Udalbatza-aretoan Getxoko Udaletxea, goian aipatutako pertsonak batu direlarik.

SARRERA

Lehendakariak bertaratuei jakinarazi die 2019ko urriaren 18ko akta itzultzeko dagoela, eta, beraz, hurrengo bilerara ekarriko duela, hala badagokio, onartzearen.

16.- 2019KO URRIAREN 15EKO EZ-OHIKO BILERA AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

En Getxo, a las 10:15 horas del día 20 de noviembre de 2019 se reúne en sesión ordinaria, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Getxo, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

INTRODUCCIÓN

El Presidente informa a los presentes que el acta ordinaria correspondiente al día 18 de octubre de 2019 está pendiente de traducción, por lo que se traerá para su aprobación, si procede, para el próximo Consejo Rector.

16.- APROBACIÓN SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR EXTRAORDINARIO DEL 15 DE OCTUBRE DE 2019

Berlaratutakoek AHO BATEZ onartu dute 2019/10/15ko data duen akta.

17.- KONTRATAZIO MAHAIA OSATUKO DUTEN KIDEAK IZENDATZEKO ERABAKIA ONESTEKO PROPOSAMENA, GETXO KIROLAK TEA-KO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ESKUMENEO KONTRATUEN EREMUAN LAN EGINDU

Ibon Rodríguezek adierazi du aurreko aldian Zuzendaritza Batzordeko Kontratazio Mahaia osatuaren osara kritikatu zutela, baina, oraingoan, eskertzen duela bete izana eta Mahaia osara berriro aztertu izana. Orain, ados daude, eta horrela ondo dagoela uste dute.

Horiek esanda, bozkatu egin da Getxo Kirolak-en Kontratazio Mahaia osatuko duten kideak izendatzeko akordio-proposamena, eta honako emaitzarekin ONARTU da:

Alde.....	10 (EAJ/PNV – PSE/EE – PP – EH BILDU)
Abstentzioak.....	1 (Elkarrekin Podemos)

18.- THINKING FADURAKO PROIEKTUEN LEHENESTASUNAK ONETSI

Lehendakariak adierazi du proposamen politikoa dela, eta, hortaz, helburua eztabaidatzea eta, hala badagokio, onartzea dela.

Hasi baino lehen, gogoratu du abuztuan metodologiari buruzko dokumentua bidali zuela, eta, ondoren, urriko Zuzendaritza Batzordera lehenesteari buruzkoa bidali zutela, ateratako proiektuen metodoa aplikatuaz.

Hori dela-eta, berlaratuei horren inguruko zalantzak aurkezteko edo galderak egiteko esan die.

Paula Amievak esan du hau uztailekoa dela, eta zegoen bezala aurkezteko zegoela; beraz, horren inguruan galderak egiteak ez du zentzurik, aurretik aurkeztu gabe; pertsonalki jakin nahiko luke nola funtzionatu duen pixka bat azaltzea.

Lehendakariak esan du metodologia azalduta dagoela.

Paula Amievak galdetu du dokumentu hori irakurri ahal izateaz gain, orain zenbateraino eguneratuta dagoen jakin nahi duela, uztailean bidali zutelako eta azaroan gaudelako. Badirudi gauza batzuk aurreratzen joan direla Thinking Faduraren prozesuan; hau da, instalazio ezberdinetan egiteko zeuden proiektuak. Lehenesteari buruzko zerbait jakin nahi luke, egun egokitzen den ala ez; hots, amaieran onartu beharra dagoen, gauzak aurreratuta dauden ala ez.

Se aprueba por UNANIMIDAD de los presentes el acta de fecha 15/10/2019.

17.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA DESIGNACIÓN DE LOS MIEMBROS QUE COMPONDRÁN LA MESA DE CONTRATACIÓN QUE ACTUARÁ EN EL ÁMBITO DE LOS CONTRATOS QUE SEAN COMPETENCIA DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL “GETXO KIROLAK”

Ibon Rodríguez manifiesta que, al igual que la vez anterior criticaron la composición de la Mesa de Contratación del Consejo Rector, en este caso, agradece se haya cumplido y que se haya vuelto a analizar la composición de dicha Mesa, con la que están de acuerdo y les parece que así está bien.

Por lo tanto, se somete a votación la nueva propuesta de acuerdo para la designación de los miembros que compondrán la Mesa de Contratación del Consejo Rector de Getxo Kirolak, quedando APROBADA la misma con el siguiente resultado:

A favor.....	10 (EAJ/PNV – PSE/EE – PP – EH BILDU)
Abstención.....	1 (Elkarrekin Podemos)

18.- APROBAR LA PRIORIZACIÓN DE PROYECTOS DERIVADOS DEL THINKING FADURA

El Presidente informa que es una propuesta política, y por lo tanto, el objeto es debate y sí procede, aprobación.

Antes de comenzar hace un poco de historia y recuerda que en agosto envió un documento que hablaba de la metodología y que con posterioridad al Consejo Rector del mes de octubre se envió el que corresponde a la priorización, aplicando el método de los proyectos resultantes.

En vista de ello, invita a los asistentes a formular cualquier pregunta o duda al respecto.

Paula Amieva comenta que esto es de julio y estaba pendiente de que se presentara como tal, por lo que, hacer preguntas sobre este tema, sin que se presente previamente, personalmente echa en falta que se explique un poco cómo ha funcionado.

El Presidente dice que se ha explicado la metodología.

Paula Amieva participa que aparte de poder leer este documento lo que quería saber es hasta qué punto ahora mismo está actualizado, dado que se envió en julio y estamos en noviembre, y hay cosas que parece que ya se han ido adelantando dentro del Thinking Fadura, que eran proyectos que se tenían pendientes de hacer con las distintas instalaciones e indica que es por saber un poco de esa priorización, si hoy se adecuía o no..., es decir, si hace falta aprobarlo al final, si hay cosas que están adelantadas o no.

Lehendakariak adierazi du dokumentu honetan ez dela aldaketarik egin. Metodologiari buruzkoa da, eta, bistan denez, honen emaitza izango da aldaketak zerk onar ditzakeen.

Beste Zuzendaritza Batzorde batzuetan jada aipatu bezala, gutxienez ekintza bat jasotzen zen, Thinking Faduraren barnean zegoena; hau da, belodromoko pistan hesia jartzea edo ixtea, segurtasuna dela-eta. Itxitura eginda dago, eta gauzatu den ekintza garrantzitsu bakarra da. Egia da beste ekintza batzuk egiten joango direla, segurtasunaren diseinuaren ingurukoak, baina funtsean barneko azterketak dira, eta horiek lehenestearn gaineko dokumentuan daude, eta aztertzen joango dira.

Halaber, egia da dokumentu hau lehenesteak ez du esan nahi aldaketak egiterik izango ez denik; hau da, bihar teknikariek lehenespena aldatzeko beste premia bat dagoela ikusten badute, aldaketa egingo da. Metodologian gerta daiteke proiektu bakoitza, zehazteko, proposamenaren jatorria (erakundea, taldea edo parte hartzeko prozesuko pertsonak) edo helburua kontuan hartuta, honela sailkatzea: "Parke irekia", "Parke osasungarria", "Kirol-parkea", "Parke segurua",... Eta proiektu bakoitzari puntuazio bat eman zaio: "iraunkortasuna" eta "bideragarritasuna" aintzat hartuta.

Bideragarritasuna oso lotuta dago agentzia sektorialen esku-hartzearekin; hots, URA eta IHOBE. Asko baldintzatzen dute haien jarduerak, zeren epeak Administrazioak kontrolatu ditzakeen moduan, Udalak ere denborak kontrola ditzake, funtzionatzeko modua ezagututa. Baina egia da URAREN eta IHOBEREN eskuetan egoteak gauzak konplikatzen dituela, haiek gobernu-organoak izateagatik, eta herritarren parte-hartzea ez da oraindik kudeaketa-eremu horietara iritsi, eta haientzat hau espedito bat gehiago da.

Beraz, proiektu askotan, leheneste-lanak URAREN eta IHOBEREN txostenen mende daude.

Berrero errepikatu du, gaiaz hitz egiteko eta onartzeko konpromisoa hartu zuenez, denbora baten barruan premia edo larrialdiren bat ikusten bada, Zuzendaritza Batzordera ekarriko dela berrito aztertzeke.

Dokumentu hau funtsean dokumentu tekniko bat da, txosten metodologiko honetan oinarritzen dena, eta instalazioak eguneratu beharra dagoela esaten da, bestelako irizpide politikorik izan gabe. Instalazioak eguneratu behar ditugula eta bidean zer-nolako zailtasunak agertzen diren ikusi (parte hartzeko prozesua, prozesu gardena,...), eta ahal den neurrian edo ahalik eta azkarren egin, nahiz eta arintasuna ez izan erraza egoera hauetan.

Ibon Rodríguezek esan du zalantza ezberdinak dituela. Lehenik eta behin, eskertuko luke dokumentuan agertzen den taula jasotzea; alegia, kapitulu bakoitzeko puntuak ikusi ahal izatea, jardura ezberdinak ere baloratzeko, ez galdera guztien erantzunak, taularen laburpena baizik, hemen agertzen den ereduaren arabera.

El Presidente explica que este documento evidentemente, no sufre modificaciones. Habla de metodología y, evidentemente, el resultado de esto es lo que puede ser susceptible de admitir modificaciones o no.

Como ya comentó en otros consejos rectores, había al menos una de las acciones, que iba incluida en el Thinking Fadura, que era el vallado de la pista del velódromo, que había que hacerlo por seguridad, pues bien, ese vallado está finalizado, y es la única acción importante que se ha ejecutado. Es cierto que se van ejecutando otras acciones, que van vinculadas al diseño de la seguridad pero básicamente son estudios internos que están en el documento de priorización y que se van analizando.

También es verdad que la priorización de este documento no quiere decir que si mañana los técnicos detectan que hay otra necesidad de cambiar una priorización, por lo que fuere -en la metodología se podía ver que a cada uno de los proyectos, por concretar, en función de la procedencia de la propuesta de una institución, colectivo o grupo de personas o del proceso participativo... por objetivos-, se clasificaba en: "Parque abierto", "Parque saludable", "Parque deportivo", "Parque seguro" y se le daba una puntuación a cada uno de los proyectos... por "sostenibilidad" y por "viabilidad".

La viabilidad está sobre todo muy vinculada a la intervención de agencias sectoriales, como pueden ser URA e IHOBE. Sí que condicionan muchísimo sus actuaciones, porque, igual que se pueden controlar los plazos que se ejecutan desde la Administración, se pueden controlar los tiempos desde el Ayuntamiento, porque se sabe como se funciona. Pero sí que es cierto que estar en manos de URA e IHOBE es extraordinariamente complejo, porque ellos son un órgano de gobierno, y la participación ciudadana todavía no ha llegado a esos ámbitos de gestión, y para ellos esto es un expediente más.

Entonces, la priorización en muchos proyectos está condicionada a informes de URA y de IHOBE.

Vuelve a repetir que dado que se comprometió a traerlo para su debate y aprobación, si dentro de cierto tiempo se detecta una nueva necesidad o urgencia, se traerá al Consejo Rector para volver a comentarlo.

Que este documento es básicamente un documento técnico basado en este informe metodológico y dice que es una necesidad de actualizar las instalaciones, no hay otro criterio político. Que actualicemos las instalaciones y veamos cuáles son las dificultades que aparecen por el camino; proceso participativo... proceso transparente y, en la medida de lo posible, ágil aunque vuelve a insistir que la agilidad no es fácil en estas circunstancias.

Ibon Rodríguez expone que tiene distintas dudas. Primero agradecería recibir esa tabla que aparece en el documento, es decir, que se puedan ver los puntos de cada capítulo para valorar también las distintas actuaciones... no la respuesta a todas las preguntas, sino el resumen de la tabla, según el modelo que aparece aquí.

Bestalde, "lehenespena" aipatzen da baina ez dakigu zein lehenespen egiten den. Ordenan jarrita dauden galdetzen du, eta, horrela bada, ez du ulertzen lehena zergatik dagoen gauzatzen eta azkena ere bai, tartean beste batzuk baitaude. Hortaz, ordenari dagokionean, zalantzak ditu.

08:40etik 09:35era bitartean, audioa ezin izan da ulertu.

Ibon Rodriguezek adierazi du lehenespen bat egiten dela edo gutxienez urtean bost proiektu baino gehiago burutzea gomendatzen dela. Horren arabera, lehenespen hori pasa egiten da.

Badaki aurreikuspen bat izan daitekeela, baina urte batzuetarako aurreikuspena egin daiteke? 2020-2021 denboraldirako errugbiko eta futboleko zelaiak eraikitzen hasiko diren jakin nahi du. Era berean, hori jakin nahi dute, zeren jakin gabe lehenespena onartzea...

10:05etik 11:15era bitartean audioa ezin izan da ulertu.

Amaitzeko, EH BILDU abstenitu egingo dela esan du, informazioa falta delako. Nahiz eta gauza onak ere izan, ez daude ados puntu batekin, eta hasieratik esan zuten; hau da, pilotalekuaren erabilerak berrantolatzea. Beste aukera batzuk aztertu behar lirateke. Gainera, planteatzen diren erabilera batzuk Zubilleta eta Santana bezalako auzoetan garatu daitezke.

Hori da hasieratik duten jarrera; ez dute uste dena Faduran pilatu behar denik, eta, horregatik, abstenitu egingo dira.

Lehendakariak azaldu du helburua dela herritarren parte-hartzetik proiektu honetan aurkeztutako eskaerei zerbitzua ematea.

Eta, jakina, Getxo Kirolakek zenbat eta kirol-instalazio gehiago izan eta kudeatu ahal izan, orduan eta hobeto. Andra Mari edo Romo eskaintzen badizkiete, haiekin lan egiteko prest egongo lirateke, baina, hasiera batean, proiektuaren helburua da parte-hartzeak eskatutakoari erantzuna ematea. Fadurak zerbitzuak eman behar ditu, baina ulertzen dute zer esaten duten.

Ibon Rodriguezen ustez, Getxo Kirolak barruan erabakitzen da kirol-politika osoa, eta Getxo Kirolaketik kanpo, Udal honetan, ez dago kirolik. Beraz, daudenera mugatu gabe, Getxo Kirolakek ondorengo esan dakiokio Udalari: "Leku bat behar dugu Portu Zaharrean, Zubietan, berdin da zein auzotan, instalazio hauek antolatzeko". Hori lortzen ez bada, bestea izan daiteke bidea. Horren falta sumatzen dute.

Paula Amieva esan du, dena berriz zentralizatzeari dagokionean, hau Thinking Fadura dela esatea, hots, ez dakiela etorkizunean Thinking Gobela bat planteatu behar den han dauden zerbitzuetarako, eta eskaerara egokituta dagoen jakin nahi duela edo lehendik dauden zerbitzuak aldatzerik izango ote den; soilik Fadurarengatik ez hitz egiteagatik, jende askori oraindik ere ez baitzaio eskueran geratzen, eta, zerbitzuak hobetu badaitezke ere, beharbada gainerako auzoak ere hartu beharko dira kontuan, eta horretan bat dator EH BILDUREkin.

Por otra parte, se menciona "priorización" pero no se sabe qué priorización se hace, pregunta si están puestos en orden y sí es así, no entiende por qué está el primero en ejecución y el último en ejecución ya que en medio hay otros, por lo que en cuanto al orden... tienen dudas al respecto.

A partir del minuto 08:40 y hasta el minuto 09:35 el audio es incomprensible.

Sigue hablando Ibon Rodríguez indicando que se establece una priorización o al menos recomiendan que se lleve a cabo más de cinco proyectos al año. Según esto, vista esta priorización se pasa.

Entonces, sabe que puede ser una previsión pero ¿se puede hacer una previsión por años? Quieren saber si para 2020-2021 van a empezar a construir los campos de rugby y de fútbol.... También quieren saber eso porque sin conocerlo aprobar la priorización...

A partir del minuto 10:05 y hasta el minuto 11:15 el audio es incomprensible.

Para terminar, desde EH BILDU se van a abstener porque ven falta de información y aunque existen cosas buenas no están de acuerdo con uno de los puntos, y lo dijeron desde el principio, y es la reorganización de los usos del frontón. Habría que analizar otras alternativas. Y dice que algunos usos que se plantean pueden desarrollarse en otros barrios como Zubilleta, Santana.

Esa es la postura que mantienen desde el principio que no ven que se tenga que concentrar todo en Fadura; por ese motivo se van a abstener.

El Presidente expone que el objetivo es dar servicio a las demandas que la participación ciudadana ha presentado en este proyecto.

Y desde luego, Getxo Kirolak cuantas más instalaciones deportivas pueda disponer y gestionar, mejor. Si les ofrecen Andra Mari o Romo estarían dispuestos a trabajar con ellos; pero en principio, el objeto del proyecto es dar cabida a lo que la participación ha solicitado, que Fadura tiene que prestar servicios pero entiende lo que dicen.

Ibon Rodríguez piensa que dentro de Getxo Kirolak se decide toda la política deportiva, fuera de Getxo Kirolak no hay deporte, en este Ayuntamiento. Entonces, en lugar de limitarnos a lo que hay, Getxo Kirolak puede decir al Ayuntamiento: "Necesitamos buscar un sitio en el Puerto Viejo, en Zubieta, da igual el barrio para organizar estas instalaciones". Si no se consigue esa, la otra puede ser la vía. Eso es lo único que echan en falta.

Paula Amieva comenta que referente a recentralizar todo, decir que esto es Thinking Fadura, que desconoce si en el futuro habría que plantearse un Thinking Gobela para los servicios que allí existen y saber si está adaptado a la demanda o si se puede dar una vuelta a los servicios existentes; por no hablar solo y exclusivamente de Fadura, que a mucha gente todavía le queda muy a desmano y aunque se puedan mejorar los servicios, quizá haya que pensar en el resto de barrios y ahí sí que coincide con EH BILDU.

Urte bakoitzean ezarrita dagoenaren arabera egutegi bat egitea aipatzen denean, hori ezagutzeko, eskertuko luke adierazle batzuk egotea, zer betetzen den eta zer ez neurtu ahal izateko.

Zeren egia da lehenespenei barnean gauza mordoia ezartzen direla, nola lehenetsi, eta, behar bada asmoen aitortpen bat izango dela, ulertzen du, URAREN eta IHOBAREN informazio hori izan arte, baina urte bakoitzean zer egin nahi den behin jakinda, beste eremuetan egiten den antzera, zer eta zenbateraino bete den ezartzea, eta zer nolako akatsak egon daitezkeen, hemen horien berri emateko, aztertze eta ahalik eta ondoren egiten ari diren hausnartzeko.

Lehendakariak ulertzen du Paulak zer eskatzen duen, baina egia da badakiela nolako akatsak egongo diren. Eta akatsak URAREN eta IHOBAREN denboraren ingurukoak izango dira. Ez dakiena da zenbat denborakoak. Adibide gida, garagardotegiaren eraistea jarri du, 2017ko martxorako aurreikusita zegoena, eta luzatu zen eguneraino luzatu zena. Eta dena URAREN sinadura bat falta izategatik.

Paula Amieva ez du esan beste administrazio batzuen denboretan sartzeko, eta Lehendakariak erantzun dio horixe dela, hain zuzen ere, proiektu gehien zailtasuna. Udalak finantzatzeko zer-nolako ahalmena duen badakite, espediente bat izapidetzeko zenbat denbora behar den badakite; baita ere, parte hartzeko fase txikia izango duten proiektuak diseinatzeko egon daitezkeen eztabaidak, ez Thinking Fadura bezalakoak, azkarragoak baizik, espazio horren erabiltzaileak izan daitezkeinei bideratuta; hortaz, parte hartzeko prozesuak izango dira. Denbora horiek kontrolatuta daude, gutxi gorabehera. Baina egia da gauzatzeko prest dagoen proiektu bat egonez gero, martxoan eraisteko eta baimena emateko beste bederati hilabete igarotzen badira...

Paula Amieva adierazi du ez dela URAREN eta IHOBAREN denboretan ari. Esaten duena da Getxo Kirolak barruan helburu bat jartzen dela; alegia, "balidinbaitere denbora horietan bete daitezela", dagoen egutegia dela-eta.

Lehendakariak esan du asmoen adierazpena egin dezaketela, baina horixe izango dela; hau da, "asmoen adierazpena".

Paula Amieva baietz esan du, hori urte bakoitzaren amaieran, egiten den ebaluazioan azaltzen dela. Adierazle horretan, ondorengo ezarri behar litzateke: "*helburu hau ezin izan da bete aurtengo urtean zehar, ezarrita zegoen moduan, honako arrazoak direla-eta*". Eta hor txosten baten, sinadura baten edo dena delakoaren atzerapena egiaztatuta geratzeko litzateke.

Lehendakariak adierazi du ez duela horretarako inolako arazorik eta teknikariek hitz egingo duela.

Paula Amieva eskaera hori jasota geratzea nahi du, egin baldin badaiteke.

Que cuando se comenta la necesidad de poder hacer una calendarización en base a lo que se tiene establecido cada año, cuando se conozca, sí que agradecería que existan unos indicadores para poder medir lo que se va cumpliendo y lo que no.

Porque es verdad que dentro de las prioritizaciones se establecen un montón de cosas, de cómo priorizar, que son una declaración de intenciones, lo entiende, hasta que se tenga esa información de URA y de IHOBE, pero una vez que se conozca lo que se quiere hacer cada año, pues igual que se hace en otras áreas, poder establecer qué se ha cumplido, en qué grado, y qué fallos puede haber, para poder notificarlo aquí, poder darle una vuelta y reflexionar sobre si es está haciendo de la mejor forma posible.

El Presidente entiende lo que solicita Paula pero también es cierto que sabe los fallos que van a existir. Y los fallos van a ser de tiempo de URA y de IHOBE. Lo que no sabe es de cuánto. Y pone como ejemplo la demolición de la cervecera, prevista para marzo de 2017, que se demoró hasta donde se demoró. Y todo fue por una falta de firma de URA.

Paula Amieva no dice que os metáis en los tiempos de otras administraciones, a lo que el Presidente le manifiesta que básicamente esa es la dificultad de la mayor parte de estos proyectos. Que se conoce la capacidad de financiación del Ayuntamiento, se conoce lo que se tarda en tramitar un expediente, las peleas que puedan existir o no en el diseño para aquellos proyectos que van a llevar una pequeña fase de participación, no como el Thinking Fadura, sino más rápidos, que van a ir focalizados a los posibles usuarios/as de ese espacio, entonces van a ser procesos de participación. Esos tiempos están más o menos controlados. Pero lo cierto es que si se tiene un proyecto preparado para ejecutar, para demoler en marzo y tardan nueve meses más en dar la autorización...

Paula Amieva señala que no habla de los tiempos de URA y de IHOBE. Lo que dice es que dentro de Getxo Kirolak se establezca un objetivo de "ójala se pueda cumplir en esos tiempos"... por la calendarización que que se disponga.

El Presidente participa que pueden hacer una declaración de intenciones pero pide que se tenga en cuenta que no deja de ser eso, una "declaración de intenciones".

Paula Amieva dice que sí, que cree que eso al final de cada año, se explica en la evaluación que se hace. Dentro de este indicador, establecer lo siguiente, que es "*no se ha podido dar cumplimiento a este objetivo durante este año, como estaba establecido, por los siguientes motivos*". Y ahí se puede constatar la demora de un informe, de una firma o lo que sea.

El Presidente manifiesta que por su parte no hay ningún problema y hablará con los técnicos/as.

Paula Amieva quiere dejar constancia de ese ruego, por si fuera posible hacerlo.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du abstenitu egingo direla, zeren, jakina, txosten tekniko eta teknikarien iritzia errespetatuaz, uste dute aurkeztutako 34 proiekturen barruan batzuk ordena ezberdinean egon behar luketela. Beti azpimarratu izan dute pilotalekuen gaia, eta 12. postuan dagoela uste dute.

Beste gai batzuk ere badira; esate baterako, kontrolaren kontua, hobetu beharrekoa, "deskontrola" dagoelako eta azken postuetan dagoelako. Aldagelen seinaleei dagokienez, adibidez, orain arte, zure seme-alabekin sartzen zara aldageletan, baina seme-alabak hor dutxa daitezke, baina "aitak" ezin du hor dutxatu eta beste aldagela batera joan behar du. Horren adierazpena ez dago argi.

Lehendakaria ados dago, eta esan du duela urte mordoia hasi zirela hori konpondu nahian, baina, azkenean, diseinu bat egin eta azaltzen den bakoitzean, norbaitek alderantziz ulertzen duela. Egia da ez dagoela argi.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du ez dagoela argi hizkuntza, eta, azkenean, gurasoak hor dutxatzen direla.

Lehendakariak egia dela esan du, eta Getxo Kirolakeko komunikazio-arloa ahalegin handia egiten ari dela irtenbide bat bilatzeko.

Berataruek esan dute aldagela mistoak erabili behar lituzketela, eta Lehendakariak erantzun die egoera konpontzea ez dela hain erraza.

Lehendakariak bozketa egingo dutela esan du eta bozkatzeari garrantzitsua dela, horri esker akta Thinking Faduraren orrialdean zintzilikatuko baitute; halaber, lehenespene hori berrikusi daitekeela gehitu du.

Modu horretan, Thinking Faduratik eratorritako proiektuen lehenespene bozkatu dute, eta ONARTUTA geratu da ondorengo emaitzarekin:

Alde.....	6 (EAJ/PNV – PSE/EE)
Abstentzioak.....	5 (PP - EH BILDU – Elkarrekin PODEMOS)

GALDE-ESKEAK

Ibon Rodriguezek honako honi buruzko kreditu-proposamena aipatu du: "Azterketa ezberdinen finantzaketa".

Lehendakariak esan dio Osoko Bilkuran zuzenketa bat onartu zela, eta Ibon Rodriguezek esan dio berrikusi nahi zuela Ordenantza osoa ondo egotea, diskriminazio-printzipiorik izan ez dadin.

Lehendakariak esan du helburua dela tasen azterketa juridikoaren eta ekonomikoaren gaineko azterketa bat kontratatzen hastea.

Ibon Rodriguezek adierazi du asmo hori hor zegoela, baina orain indarrean sartzen dela eta horrekin hasi direla, eta horri zehazki erantzuten diote.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica participa que se van a abstener, porque respetando obviamente, el informe técnico y la consideración de los técnicos entienden que dentro de los 34 proyectos presentados, cree que algunos deberían estar en diferente orden. Que siempre han insistido en el tema de frontones y cree que se encuentra en el número 12.

Aparte hay otros temas, por ejemplo el tema del control que debe mejorar porque hay un "descontrol" y también está por orden de los últimos. Por ejemplo, la señalítica de los vestuarios. Resulta que, hasta ahora, entras con tus hijos en los vestuarios, pero resulta que los hijos se pueden duchar ahí, pero el "padre" no se puede duchar; tiene que ir a otro vestuario. La indicación no está clara.

El Presidente está de acuerdo y comenta que llevan un montón de años intentando solucionarlo pero es que, al final, cada vez que se hace un diseño, y se explica, siempre hay alguien que lo entiende al revés. Pero es verdad que no queda claro.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica dice que no queda claro el lenguaje, y al final, los padres se duchan ahí.

El Presidente considera que es cierto y se está haciendo un esfuerzo enorme por parte del área de comunicación de Getxo Kirolak por intentar buscar una solución.

Que aunque de los asistentes comenta que utilicen los vestuarios mixtos, el presidente contesta que no es tan fácil resolver la situación.

El Presidente da paso a la votación informando que esta votación es importante ya que da pie a poder colgar el acta en la página del Thinking Fadura, haciendo referencia que esta priorización es revisable.

Sometida a votación la priorización de Proyectos derivados del Thinking Fadura, queda APROBADA la misma con el siguiente resultado:

A favor.....	6 (EAJ/PNV – PSE/EE)
Abstención	5 (PP - EH BILDU – Elkarrekin PODEMOS)

RUEGOS Y PREGUNTAS

Ibon Rodríguez habla sobre una propuesta de crédito sobre "Financiación de Diversos Estudios".

El Presidente dice que en el Pleno se aprobó una enmienda, participándole Ibon Rodríguez que el asunto es que se debe revisar que toda la Ordenanza esté de acuerdo para que no haya principio de discriminación.

El Presidente comenta que el objetivo es comenzar a contratar un estudio sobre la revisión jurídica y económica de las tasas.

Ibon Rodríguez manifiesta que estaba pendiente esa intención pero ahora entra en vigor y se empieza con ello y también se le responde a eso en concreto.

Paula Amievak galdetu du ez dakiela hemen galdetu behar duen, baina Makalen Etorbidean obra batzuk egiten ari direla, eta Lehendakariak erantzun dio hori ez dela haren eskumenekoa.

Paula Amievak adierazi du jende askok esan diola obrak direla-eta arazo handiak daudela trafikoarekin eta semaforoek erregulazioarekin, baina, bestela, bihar dagokion batzordean galdetuko duela.

Lehendakariaren ustez, denboraldi bateko arazoa da, eta Fadurarako sarrerako bidegurutzearen aurrean dagoen biribilgunearen zatia berrantolatutakoan, ondo egongo da.

Paula Amievak esan du pertsona horiei esan diela obrak medio aldi baterako kontua dela, baina egia dela semaforoekin dagoen beste arazo bat gehiago dela obra bera baino, eta badirudiela horrek sortzen dituela ilara eta zailtasun gehien.

Gai gehiagorik ez dagoenez, saioa amaitutzat ematen da, akta honen goiburuan aipatutako dataren 10:42ean.

Paula Amieva pregunta que desconoce si lo tiene que preguntar aquí pero tiene que ver con las obras que se están realizando en la Avenida de Los Chopos, contestándole el Presidente que a él no le compete.

Paula Amieva manifiesta que varias personas le han trasladado que debido a las obras hay mucho problema con el tráfico y con la regulación de los semáforos, pero si no, lo preguntará mañana en la comisión que corresponda.

El Presidente cree que es una problemática temporal, y que en cuanto se reordene la parte de la rotonda que va delante del cruce de la entrada a Fadura, eso va a estar ordenado.

Paula Amieva dice que lo ha comentado con las personas que se lo han dicho, que es temporal debido a las obras, pero es verdad que parte es un problema más con los semáforos que solo por la obra en sí y parece que eso es lo que genera más atascos y más dificultades.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 10:42 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.